

ALARDEAREN BATZORDEA SAN MARTZIALEKO ALARDEAREN ORDENANTZA IRUN

Xedapen orokorrak

Irungo biztanleen beraien nortasuna finkatzen duen ekitaldi garrantzitsuena da San Martzialeko Alardea. Nagusiki jai izaerako ekitaldia den arren, erritu batzuen arabera burutzen da hura, komunitatearen iraunkortasuna irudikatzen baitu nola denboran (urtero egiten da, ekainaren 30ean) hala espazioan (udal barrutian).

Koreografia konplexu baten bidez irudikatzen da Alardea, eta hura egokiro garatuko bada, parte hartzaileek begirunea izan behar diete jantziei, musikari eta goizez nahiz arratsalde bezala, bezperan eta bezpera aurrekoan izaten ere diren ekintza eta mugimenduei. Aipatu helburua lortu ahal izateko, Alardea antolatzeke moduak arautzen ditu Ordenantza honek.

1. Artikulua

San Martzialeko Alardeak San Martzial ermitara prozesioan joan ohi ziren kabildo sekularrari eta eliz kabildoari laguntzen zien ohorezko eskoltan du jatorria, prozesioan igotzen baitziren aipatu mendira 1522ko ekainaren 30eko garaipena eskertzeko botoa betetzera, data hartan hiria berreskuratu eta euren etxeetara itzuli ahal izan baitziren Irungo biztanleak, hiria okupatu zuten gudarosteak egotzi eta gero. Alarde izenak Erregimen Zaharrean zehar Gipuzkoako udalerrri guztiek nahitaez egin beharreko arma eta pertsonen ikuskatzean du jatorria.

Irunek, beste kontzejuek bezalaxe, herrian bertan alardeak egiteko eskubidea aldarrikatu zuen, bere agintariekin eta banderarekin. Eta halaxe egin zen mendeetan zehar, izaera militarreko agindua irundarron nortasuna finkatzeko ekitaldi bihurtuz.

2. Artikulua

Jatorritik nahiz izenetik berex, San Martzialeko Alardeak XVI. mendean geroztik eutsi dio irundarron nortasuna finkatzeko errituaren izaerari. Xede horretan aldaketak egin dira haren ibilbidean, ordutegietan, forman, parte hartzaileen kopuruan eta osieran, betiere unean uneko errealitateari egokitzeko. XX. mendean zehar aldaketak ezagutu eta egungo ezaugarrien jabe egin zen, batez ere ezaugarri nagusiaren jabe: berez, ohorezko eskolta izateari utzi zion, eta bere biziaren jabe egingo zen, kabildoen prozesiotik berex.

Honenbestez, bertan jaio direlako, bertan bizi direlako edo, besterik gabe, maite dutelako, Irungo hiriarekin lotuta sentitzen diren hiritar guztiei zabalduko ekitaldia da San Martzialeko Alardea XXI. mendean, nahi duen orok berdintasunean eta askatasunean parte har baitezake hartan.

Alardea gisa honetan egin izan da 1996ko apirilean emakume talde batek udalari alardearen ordenantzak aldatzeko eskaera egin zion arte, nahi zuten emakumeek parte hartu ahal izan zezaten alardean gizonek bezalaxe, emakumeek, historikoki, kantinera gisa baizik ez baitzezaketen parte hartu Alardean.

Irungo Udaltzatzen Osoko Bilkuraren gehiengoak eskaerari uko egin izanak EAEJANaren aurrean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea eragin zuen, eta honek, 1998ko Urtarrilean, emakumeak Alardean parte hartzearen aldeko erabakiaren berri eman zuen.

Gertaera hauek aurreko ehundik gora urteetan egindako alardearen desagertzea ekarriko zuten.

1998. urtetik aurrera bi alarde egiten dira Irunen, bata EAEJANaren ebazpenaren betetzea saihesteko xedean pribatu bihurtu dena, emakumeak soilik kantinera gisa onartzen jarraitzen duena.

Eta bestea Emakunde eta Gipuzkoako Foru Aldundia bezalako erakundeek finantzatutakoa, alarde publikoa izateko, alarde ez diskriminatzailea izateko, bokazioarekin eta gure arbasoen Alardearen onena biltzeko asmoarekin sortua.

Guk, hain zuzen ere, biltzeko, elkartzeko, aldeak errespetatzeko eta berdintasuna bermatzeko gaitasuna izango duten Alardea eta jaia nahi ditugu. Ez diogu Udalak irundar guztientzat antolatutako Alarde bakarra eta ez diskriminatzailea ahalbidetu dezaketen baldintzak sortzeko lanari uko egiten.

Egun hori iritsi bitartean, Alarde hau antolatzen jarraitzeko borondatea dugu, eta beraz, arau gutxi batzuk finkatu nahi ditugu helburua bete ahal izateko. Nolanahi ere den, arau hauek berrikusi eta aldatu ahal izango dira egoki irizten denean.

Alardearen osaera

3. Artikulua

Gutxienez 14 urte eduki behar dira Alardean parte hartzeko.

4. Artikulua

Infanteria Konpainiek eta ondorengo Artilleria Bateriak osatuta dago Alardea, guztien aurrean Gastadore-Artxeroak, txilibitu eta danbor banda, Musika Banda eta Zalditeria Jeneralarekin.

Jeneralak gidatuko du Alardea, eta lau armei (Infanteria, Artilleria, Zalditeria eta Buruzagien Batzordea) dagozkien beste hainbeste Laguntzaile izango ditu alboan, baita Infanteriako Komandante bat ere.

5. Artikulua

Honatz Alardearen osaeraren ordena: Artxeroak, txilibitu eta danbor Banda, Musika Banda, Jenerala eta Buruzagien Batzordea, Zalditeria, Komandantea, Infanteria Konpainiak eta, jarraian, Artilleria Bateria.

Buruzagiak

6. Artikulua

Alardearen nondik norakoak transmititzeko xedean, buruzagi guztiek lehendik hartan parte hartutakoak behar dute izan. Karguek 4 urteko indarraldia izango dute, haiek urtero berretsi behar dira, eta dagokion konpainia eta Alardearen Batzordea bat etorriz gero, epea luzatu ahal izango da. Alardea bikain ateratzeko egitekoak behar bezala burutzeko xedean, ezinbestekoak dira buruzagien ardurak eta konpromisoak.

Jenerala

7. Artikulua

Jeneralak guztiak ordezkatzeko gaitu Alardean.

8. Artikulua

Jenerala izateko, ezinbestekoa da Alardean gutxienez 5 urtez eta zuzenean parte hartu izana. Buruzagien Batzordeak, Alardearen Batzordearekin batean, proposatuko du aipatu kargua beteko duen pertsona.

Alardean zehar Jeneralak aginduak emateko Turuta-jotzailea eta Infanteriako soldadu bat izango ditu alboan une oro, azken honek arma bizkarrean duela.

Komandantea

9. Artikulua

Komandantea da Infanteriako arduraduna, eta Buruzagien Batzordeak eta Alardearen Batzordeak aukeratua izanen da.

10. Artikulua

Jeneralaren laguntzaile gertuena izango da, eta jeneralaren kargua betetzeko ezaugarriak edukiko ditu, behar izanez gero Jeneralarenak bete beharko baititu. Komandantea arduratuko da unitateen kontzentrazioak adierazitako orduetan gauzatzeaz, komandanteak konpainiak ikuskatuko ditu, eta haien egoera eta itxura behar bezalakoak direla egiaztatuko du.

Kapitainak eta Unitate-buruak

11. Artikulua

Konpainiek eta unitateek beren batzarretan aukeratuko dituzte kapitainak eta Unitate-buruak. Aurkeztutako hautagaien arteko zozketak erabakiko ditu.

Jeneralaren laguntzaileak

12. Artikulua

Jeneralak aukeratuko ditu bere eskoltako lau kideak. Kide hauen artetik Infanteriakoak beteko ditu Komandantearenak honek, edozein arrazoi dela-eta, ezin desfilatu dezakeenean.

Zalditeriako eskolta

13. Artikulua

Zalditeriako Eskolta haren Barne Araudiko Arautegiak ezarritako arauen arabera osatuko da. Kapitain batek, Lotinantorde batek, kantina batek, sarjentu batek, kaporal batek eta soldaduek osatuta egongo da.

Infanteria konpainiak

14. Artikulua

Kapitain batek, Lotinantorde batek, bi Sarjentuk, hiru Kaporalek, Kantina batek eta soldadu armatuek osatuko dituzte Infanteria Konpainiak, txilibitu eta danbor bandek lagundurik.

Kaporaletako batek konpainiaren banderatxoa eramango du bere armaren muturrean.

Konpainietako Ofizialak, Sarjentuak eta Kaporalak konpainiek berek izendatuko dituzte.

Soilik Bidasoa Konpainiak, salbuespena baita, beste Lotinant bat izango du, Hiriko Bandera eramango duena bera.

15. Artikulua

Konpainiek behar bezala egingo dituzte deskargak, saihestu egingo dira Alardean zehar tiro solteak, eta Kapitainen eta gainerako Buruzagien funtsezko ardura izanen da agindu hau betearaztea.

16. Artikulua

Infanteria konpainien barne antolakuntza haien Barne Araudiko Arautegietan xedaturikoari jarraiki egingen da.

Artxeroen eskuadra

17. Artikulua

Kaporal batek eta Artxeroek osatuko dute Artxeroen Eskuadra. Haren Barne Araudiko Arautegian xedaturikoari jarraiki antolatuko da.

Danborrada

18. Artikulua

Danbor Nagusiak, hiru Laguntzailek, Kantina batek eta lagunak, txilibituek eta danborrek osatuko dute Danborrada. Danborradaren barne antolakuntza bere Barne Erregimenaren Arautegian xedaturikoari jarraiki gauzatuko da.

Musika Banda

19. Artikulua

Zuzendariak, Bigarren Zuzendariak, kantinera batek eta lagunak eta musikariek osatuko dute Musika Banda.

Artilleria Bateria

20. Artikulua

Kapitain batek, Lotinant batek, Lotinantorde batek, Kantinera batek eta haren lagun Sarjentuak, artilleria pieza bakoitzeko Kaporak, Turuta-jotzaileak eta dagozkien artilleroek osatuta egongo da Artilleria Bateria. Artilleria Bateria barne antolakuntza bere Barne Erregimenaren Arautegian xedaturikoari jarraiki gauzatuko da.

Kantinerak

21. Artikulua

Konpainiek eta unitateek aukeratuko dituzte euren Kantinerak. Aurkeztutako hautagaien artean zozketa egingen da Kantinera aukeratzeko.

22. Artikulua

Kantinerak, buruzagiek bezala, dagokion irudiak berezko dituen ardurak egingo ditu bere, eta haren presentzia eskatzen den ekitaldi guztietan izango da.

Armen Ikuskaritza

23. Artikulua

San Pedro egunean, arratsaldean, Jeneralak, Komandanteak eta Zalditeriako Eskoltak Infanteriako Konpainiak eta Artilleria Bateria ikuskatuko dituzte xede horretan espresuki adostutako auzo, leku eta orduetan. Aldez aurretik dagozkion jaurtigaiak banatuko dira.

Alardea

24. Artikulua

Alardea Urdanibia Plazan bilduko da Komandantearen aginduei jarraiki. Kapitainei deitu eta gero, San Juan Harria Plazara joango dira, eta han Jenerala azalduko da guztiaz arduratzeko xedean.

25. Artikulua

Jeneralak konpainiak ikuskatu eta Kapitainei deitu ostean, Hiriko Bandera hartzeko agindua emango du, eta berezko eskubidea izanik, Bidasoa Konpainiak eramango du hura. Behin bandera jaso eta gero, deskarga bat egingen du Infanteriak. Jarraian abian jarriko da Alardea, Eliza eta Eskoleta karraketan barrena egingo du aurrera, Junkal Plazatxora iritsiko da eta han dagozkion tiroak botako ditu.

26. Artikulua

Gero San Martzial mendiko Ermita historikorantz bideratuko dira gudarosteak, honako ibilbide honi jarraiki: Eskoleta eta Fermin Calbeton karrikak, Jenaro Echeandia plaza, Foruen Karrika eta Karrika Nagusia, San Juan Harria Plaza, San Martzial, Sarjia, Larretxipi kaleak, Urdanibia Plaza eta Santa Elena kalea.

27. Artikulua

Alardeko konpainiek Santa Elena kalean hautsiko dituzte lerroak, baina berriro ere osatuko dituzte San Martzial mendian; bertan Meza emango da. Elizkizunean zehar Artxeroen Eskuadrak zainduko du aldarea.

Konpainia batek, Bidasoa konpainiako Kapitainaren aginduei jarraiki, ohiko tiroak egingo ditu.

28. Artikulua

Alardea berriro ere abian jarri baino ordubete lehenago, ordenantzak deitu eta gero, beherako bidean jarriko dira soldaduak.

29. Artikulua

Arratsaldean, konpainiak Santa Elena kalean antolatuta, Jeneralak Kapitainei dei egin eta gero, Alardea berriro ere abian jarriko da honako bideetan barrena: Urdanibia Plaza, Kontrakalea, Zeharkalea, Larretxipi, Sarjia, San Martzial, Karrika Nagusia, Foruen Karrika, Jenaro Echeandia Plaza, Fermin Calbeton eta Eskoleta kaleak eta Junkaleko Ama Birjinaren Elizako Plazatxoak. Bertan dagozkien tiroak egingo dira.

Ondoren Eskoleta eta Fermin Calbeton kaleetan barrena, Jenaro Echeandia Plazan, Colon Ibilbidean, Gipuzkoa Hiribidean, Artalekun eta Karrika Nagusian barrena, egingo du Alardeak San Juan Harria Plazaraino, eta bertan, Udaletxean, Hiriko Bandera itzuliko du. Agur tiroak egin ostean, konpainiak berriro ere martxan jarriko dira nor bere abiapuntura itzultzeko.

30. Artikulua

Honako uniforme hauek eramatea ondo zainduko da:

Jeneralak: Frak eta praka beltzak, urre koloreko mortxilez hornituriko gerriko gorria, Aginte makila, eskularru zuriak, mortxila beltzak eta biadarrekoa edo adar biko kapelua eta ezproiak.

Komandanteak: Txapel gorria, jaka beltza dagokion adierazlearekin mahukaburuan, zaldiz ibiltzeko praka zuriak, alkandora zuria, eskularru zuriak, zaldiz ibiltzeko bota beltz ezpoidunak, gerriko gorria, gorbata gorria, zapi gorria jakaren goiko poltsikoan, goizez, eta lepoaren inguruan arratsaldez (gorbata kendu gabe).

Laguntzaileek:

- a) **Infanteriakoak:** Armadako jaka eta praka gorriak hori biziakin, txapel gorria, eskularru zuriak, zaldiz ibiltzeko bota beltzak, errearen koloreko lokarri eta gerrikoak, ezproiak eta sablea.
- b) **Artilleriakoak:** Armadako jaka urdina gorri biziakin, praka zuriak marra gorriarekin, txapel gorria, eskularru zuriak, zaldiz ibiltzeko bota beltzak, gerriko gorria, urre koloreko lokarria, ezproiak eta sablea.
- c) **Buruzagien Batzordekoak:** Armadako jaka eta praka urdinak berde biziakin, gerriko berdea urre koloreko mortxilekin, txapel gorria, eskularru zuriak, zaldiz ibiltzeko bota beltzak, ezproiak eta sablea.
- d) **Zalditeriakoak:** Armadako jaka zuria urdin biziakin, praka urdinak marra zuriarekin, txapel gorria, eskularru zuriak, zaldiz ibiltzeko bota beltzak, gerriko zuria, ezproiak eta sablea kurbatua.

Kantinerak: Txapel gorria, belus beltzeko soinekoa, urre koloreko galoia eta botoiak, barruko galtza motzak eta gona tolesduna (biak flanela zurian eginak), eta azkenekoa soinekoaren kolore bereko zerrenda zabalarekin, belus beltzeko mantala txiki bordatua, xingola zuria dagokion upeltxoarekin, eskularru zuriak, olana zuriko bota garaiak eta haizemailea.

Salbuespen gisa, Zalditeriako Kantinerak jaka urdin argia jantziko du, eta Artilleriakoak jaka urdin-pastela; gona zuria jakaren kolore bereko zerrenda zabalarekin, zaldiz ibiltzeko bota beltzak eta zaharoa, Uniformearen gainerako elementuak berdinak izango dituzte, xingola izan ezik, Zalditeriakoa gorria izanen baita.

Artxeroak: Txapel gorria, alkandora zuria, jaka beltza dagokion adierazlearekin mahukaburuan, praka zuriak eta azpantar beltzak, espartina zuriak lokarri beltzekin, aurreko mantala, larruzkoa, eta, mahukan, soldaduen galoia (ahal dela pikotxak eta palak eraturako X itxurarekin). Kaporalak zerra bat eramango du, Eskuadrak bakarra, eta Lubakitzzaileen Taldeak berezko dituen lanabesak eramango dituzte besteek.

Arratsaldez Kaporalak zapi gorria eramango du lepoaren inguruan lotuta, eta eskuadrak zapi zuria.

Infanteriak: Txapel gorria, alkandora zuria, jaka beltza, praka zuriak, galtzerdi zuriak, kolore bereko espartinak lokarri beltzarekin, gerriko gorria, gorbata gorria eta zapi gorria, jakaren goiko poltsikoan goizez eta lepoaren inguruan arratsaldez (gorbata kendu gabe).

Kapitainek, Lotinanteak eta Lotinantordeak eskularru zuriak eta adierazleak eramango dituzte mahukaburuan.

Armak:

Ofizialek sablea eta soldaduek eskopeta.

Aginduak emateko Turuta-jotzaileak Infanteriako soldaduek erabiltzen duten uniforme berdina izango du, eta eskopeta zintzilik eramango du.

Artilleriak: Txapel gorria, jaka oihal kolorez urdin-pastelekoa eta urre koloreko botoiekin, eta, lepo aldean, dagokion arma adierazten duten bi bonbatxo, praka zuriak zerrenda urdinarekin, azpantar beltzak, gerriko zuria eta aihotza.

Ofizialek eskularru zuriak eramango dituzte, adierazleak mahukaburuan eta sablea. Sarjentuek eta kaporalek adierazleak eramango dituzte mahukan.

Musikariek, txilibitu eta danbor jotzaileek: Txapel gorria. alkandora zuria, jaka beltza, praka zuriak, galtzerdi zuriak, kolore bereko espartinak lokarri beltzekin eta zapi gorria jakaren goiko poltsikoan, goizez, eta lepoaren inguruan arratsaldez (gorbata kendu gabe).

Danbor Nagusiak oihalki batez inguratutako makila eramango du txilibitu eta danbor banda zuzentzeko.

Danbor Nagusiak eta bandako Zuzendariak adierazleak eramango dituzte mahukaburuetan.

Adierazleak

31. Artikulua

Komandanteak: “Opiltxoaren” formako bi galoi eramango ditu mahukaburuan (urre kolorekoa bata, zilar kolorekoa bestea), 18 eta 14 mm zabal hurrenez hurren.

Laguntzaileek: “Opiltxoaren” formako galoi bat, urre kolorekoa, 10 mm-koa eta zilar koloreko beste bat, 10 mm-koa.

Infanteria

- a) **Kapitainek:** Infanteriako Kapitainek urre koloreko hiru “soutache” galoi eramango dituzte mahukaburuetan.
- b) **Lotinantek:** Urre koloreko bi “soutache” galoi.
- c) **Lotinantordeek:** Urre koloreko “soutache” galoi bat.
- d) **Sarjentuek:** “Soutache” galoi gorri bi.
- e) **Kaporalek:** “Soutache” galoi gorri bat.

Artilleria eta Zalditeria

1819. urtean zegozkien adierazleak eramango dituzte arma hauek.

Artxeroek

Kaporalak: Infanteria, kaporalen adierazle berdinak eramango ditu.

Musika Banda eta Danborradako

Bandako Zuzendariak eta Danbor Nagusiak urre koloreko hiru botoi eramango dituzte mahukaburuan.

Armen Mugimenduak

32. Artikulua

Abian jartzean soldaduek sorbaldan eramango dituzte armak.

Jenerala iristen ari denean Komandanteak irmo jartzeko aginduko du.

Hiriko Bandera jasotzean, Bidasoa konpainiako kideak armak "soinaren aurrean dutela" egongo dira.

Beste arma mugimendu guztiak Jeneralaren aginduetara egingo dira.

Alardearen Musika

33. Artikulua

San Martzial egunean, goizeko seiak puntu-puntu, Musika Bandak Villarrobledoko Diana joko du. Hura amaitutakoan, Danborradak ohiko Diana interpretatuko du leku berean.

Alardean zehar, beren ibilbidean zehar, Danborradak jotzen dituen martxa berak interpretatuko dituzte Konpainiek. Danborradak Musika Bandarekin jotzen duen lekuetan, San Martzialen Ereserkia baino ez da entzungo.

Alardeko Indarrak Urdanibia Plazatik abiatuko dira Danborradak interpretatzen duen "Arrankada" deitu martxaren doinuari jarraiki, eta martxa horixe bera jotzen jarraituko du San Juan Harri Plazako sarreraraino.

Hiriko Bandera "Tteiro" eta San Martzialen Ereserkiaren doinuen artean jasoko da, doinuok Danborradak eta Musika Bandak interpretaturik, hurrenez hurren.

Junkaleko Ama Birjinaren parrokia-elizarantz abiatzean, "Jolo" deitua interpretatuko dute bandek.

Elizatik Fermin Calbeton kaleraino, "Elizatik Igoera" deitu pieza joko du Danborradak, eta puntu horretatik aurrera, berriro ere "Jolo" joko du Musika Bandarekin batean Santa Elena kalean amaitu arte.

Arratsaldez Santa Elena kaletik Alardea berriro ere abian jarritakoan, Danborradak "Arrankada" joko du Sarjia kaleraino. Puntu honetatik aurrera Danborradak, Musika Bandarekin bat eginik, "Rataplan" deitu doinua joko du Junkaleko Ama Birjinaren Parrokia-Elizaraino.

Ondoren, Elizako Plazarik Fermin Calbeton kaleraino, Danborradak "Elizatik Igoera" doinua interpretatuko du berriro ere, eta Alardeko Indar guztiak San Juan Harri Plazan bildu daitezen arte, bidean zehar Musika Bandak eta Danborradak interpretatutako "Rataplan" doinuari jarraiki ibiliko dira denak.

Alardeak San Juan Harria Plazan egindako kontzentrazioan botatako aginduzko tiroak egin ostean entzungo da "Deskarga" martxa.

Hiriko Bandera Udaletxera itzultzean, "Tteiro" interpretatuko du Danborradak, eta San Martzialen Ereserkia Musika Bandak.

Jeneralak aginduta "Fagina" joko dute Musika Bandak eta Danborradak.

"Fagina" interpretatu eta gero, Danborradak, Musika Bandak eta Konpainietako txilibitu eta danbor bandek beren bidea egingo dute "San Martzialen Ereserkiaren" doinuei jarraiki.

Alardearen Batzordea

34. Artikulua

Topagune, lantoki eta adostasun gunea da organo hau. Konpainietako buruzagiek edo ordezkariak osatuta egongo da, eta hartan leku izango dute baita Alardea hobetzeko xedean beren ekarpena borondate osoz egin nahi dutenek ere.

Alardearen Batzordea da, Buruzagien Batzordearekin edo konpainietako ordezkariarekin batean, Alardearen Antolakuntzaz eta funtzionamenduaz arduratzen den organoa. Alardearen batzordeak ahalak izango ditu Ordenantzak garatzean eta haiek interpretatzean sor litezkeen zalantzen ingurukoak ebazteko.

Irun, 2009ko apirila